

Xabier Letona



DANI BLANCO

Memoriak

MUNDUAN gehienek goraipatu ohi dute Ipar Irlandako bake prozesua, bai han bertan eta baita atzerrian ere. Mundu errepublikarrean eta unionistan badira harekin desadostasunak dituzten taldeak, baina oso txikiak eta bazterrekoak dira. Oro har, alabaina, Stormonten elkarrekin gobernatzen duten DUP eta Sinn Feinetik hasi eta gizarteko gainerako talde politiko eta sozial gehienetara, prozesua hobesten dute. Herriar arruntentzat iraganeko kontua da ia, eta gazteenentzat historia. Nazioarteko gatazka konponbidearen esparruan prozesu eredu-garritzat saltzen da. Euskal Herri-tik ere asko hurbildu dira hara azken 15 urteetan, abertzale eta ez abertzale, eta laudorioak ekarri dira beti besapean, hori bai, hura eta hau desberdinak direla argi azpimarratuta.

Hala da, jakina, eta beste ezau-garri desberdin askoren artean, han bake prozesua etsaien artean adostuta egin zen eta hemen alde-bakarrekoa da. Baina balore eta kontzeptu antzerakoen gainean egin behar da dantzari han eta hemen: memoria jorratu behar da eta bizikidetzaren ere bai, esaterako.

Etengabe ikusten da memoria Ipar Irlandako kaleetako txangoetan, auzo unionista edo errepublikar bateko paretetan, Belfastko udaletxeko kuadro eta oroigarrietan edo Derryko Bloody Sunday Museoa, besteak beste. Aste Santuan Irlandako iparraldean egindako egonaldian, Sinn Feinek Derryn antolatutako Pazko Altxamenduaren martxa ikusteko aukera ere izan nuen –Irlandako askatasunaren bidean hildako guztiak omentzen dituzte–, duela 19 urte bezala. Oroimena eta borrokaren diskurtsoa izan zen 1995eko hura,



oroimena eta elkarbizitzaren diskurtsoa oraingoa. 1920an independentzia gerran hildakoak omentzen zituzten, baina hilerrira zeramatzen argazkien artean IRAko dozenaka hildako ere baziren. Ez zen segurtasun indarren presentzia agerikorik martxaren inguruan, hurrengo egunean Erresuma Batuko Gobernuaren ordezkariak ez zuen salaketarik jarri inoren aurka, hedabideetan albisteak bere espazioa zuen –ez handi ez txiki– eta listo.

Pazko Altxamenduko egunari begira, Sinn Feineko bozeramaile Declan Kearney-k argi adierazi zuen memoria egiten ari zirela, baina onartzen zuela hainbat memoria zirela eta elkarren arteko bizikidetzaren jorratu behar dela. Besteak beste, hori bideratzera joan ziren apirilaren 8an Martin MacGuinness Stormonteko lehen ministro-ordea eta Mairtin O'Muilleor Belfastko alkatea –biak Sinn Feinekoak– Windsorreko Jauregiari, Isabel II.a erreginak gonbidatutako estatu afari ospetsura. Irlandako Errepublikako lehendakari batek Erresuma Batura egiten zuen lehen bisita

ofizialaren ohorez egindako afaria zen. Sona handiko afaria, diplomaziak bereziki zaindu behar duen horietakoa.

Komunikabide askok argi azpimarratu zuten MacGuinness han izan zela; 1979an IRAk Isabel II. erreginarekin osaba hil zuenean erakunde hartako buruzagitzakoa zen MacGuinness hura han egon zela. Eta erreginak eta hark eskua luzatu ziotela elkarri.

Afariaren harira, Sinn Feineko lehendakari Gerry Adamsek azaldu zuen Irlanda eta Erresuma Batuko harreman berrien testuinguruan kokatzen dela MacGuinnessen bisitaldia. Eta, beste hainbat ideien artean, zera azpimarratu zuen: “Orain bada Batasunaren amaiera eta zatiketaren aurka borrokatzeko modu baketsua”.

Ez dakit errepublikar eta unionisten arteko, edo irlandar eta britainiarren arteko memoria konpartiturik ba ote dagoen, baina oro har, alde bakoitzak berea egiten du eta, kasurik onenean, jorratze horretan zer errepikatuko beharko ez litzatekeen azpimarratzen dute. ■

